Espedientea udal idazkaritzan egongo da ikusgai 30 egunez, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Indarreko araudiak xedatutakoari jarraituz, erabaki hau behin betiko bihurtuko da erreklamaziorik aurkeztu ezean.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Legutiano, 2003ko irailaren 26a.– Alkatea, FRANCISCO RETEGUI AYASTUY.

## AGURAIN

**6.167**

**Iragarkia**

Jakinarazten da Promociones Vigur, SL sozietateak espedientea bideratu duela Aguraingo Zapatari kalea, 45-47 helbidean ibilgailuen gordelekuaren jarduera salbuetsia jartzeko, José Ignacio Herrero Raigadas industriako ingeniari teknikoak idatzitako jarduera proiektuari jarraituta.

Martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren 3.2 artikuluari jarraituz —Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak aipatzen duen jarduera-baimena eskuratu beharretik salbuetsita dauden jardueren zerrenda ezartzen du— jendaurrean jartzen da dagokion espedientea, jarduera horrek nolabait eragin diezaiekeela uste dutenek egoki iritzitako alegazioak eta oharrak egin ditzaten. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, ediktu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondoko egun baliodunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Agurain, 2003ko urriaren 2a.– Alkatea, IGNACIO Mª BERAZA ZUFIAUR.

## HARANA

**6.168**

**Iragarkia**

Norbanakoen eskariz bide publikoan hiri altzariak jartzea arautzen duen Ordenantza jendaurrean egon den bitartean ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu haren aurka; beraz, ordenantza behin betiko onartuta dago. Hori horrela, indarrean dagoen legerian arabera argitara ematen da ordenantzaren testua oso-osorik, indarrean sar dadin.

Harana, 2003ko urriaren 2a.–Alkate-lehendakaria, PEDRO SAN VICENTE CORRES.

**Eranskina**

NORBANAKOEN ESKARIZ BIDE PUBLIKOAN HIRI ALTZARIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

1. artikulua.- Helburua.

Araudi honen helburua da norbanakoen eskariz hiri altzariak jartzeko bide publikoa okupatu eta berariz erabiltzea arautzea, oinezkoen eta ibilgailuen osotasuna eta bide publikoak ondo zainduta egongo direla bermatzeko. Horretarako, esandako okupaziorako aurretik behar den udal baimena lortzeko betebeharrak zehaztuko dira.

2. artikulua.- Ezarpen eremua.

Araudi hau Haraneko udalerriko herri guztietan ezarriko da.

3. artikulua.- Udal baimenaren beharra.

3.1. Norbanakoen eskariz hiri altzariak jartzeko bide publikoa edo haren zati bat okupatu eta berariz erabili behar bada, nahitaezkoa izango da aginduzko udal baimena lortzea.

3.2. Baimen hori eskatzeko orriarekin batera hura ematea komeni den ala ez erabakitzea ahalbidetuko duten agiriak aurkeztuko dira.

El expediente queda expuesto al público en Secretaría Municipal, por un plazo de 30 días, a contar del siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

De conformidad con lo establecido en la normativa vigente, este acuerdo se considerará definitivamente adoptado en el supuesto de que no se presentasen reclamaciones.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Legutiano, a 26 de septiembre de 2003.– El Alcalde, FRANCISCO RETEGUI AYASTUY.

## SALVATIERRA

**6.167**

**Anuncio**

Se hace saber que por Promociones Vigur, S.L. se ha tramitado expediente para la instalación de actividad de exenta de guardería de vehículos sita en calle Zapatari 45-47 de Agurain conforme al proyecto de actividad redactado por el Ingeniero Técnico Industrial don José Ignacio Herrero Raigadas.

De conformidad con lo establecido en el artículo 3.2 del Decreto 165/1999 de 9 de marzo por el que se establece la relación de actividades exentas de obtención de actividad prevista en la Ley 3/1998 de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, se hace público, a fin de que quienes se consideren afectados por la mencionada actividad, puedan formular las alegaciones u observaciones que estimen oportunas en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el siguiente hábil a la publicación de este Edicto en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Agurain, a 2 de octubre de 2003.– El Alcalde, IGNACIO MARÍA BERAZA ZUFIAUR.

## VALLE DE ARANA

**6.168**

**Anuncio**

No habiéndose presentado reclamaciones contra la Ordenanza reguladora de la instalación de elementos de mobiliario urbano en la vía pública a instancia particular, durante el período de su exposición al público, la citada Ordenanza queda definitivamente aprobada. Por lo que a efectos de lo establecido en la legislación vigente, se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor.

En Valle de Arana, a 2 de octubre de 2003.–El Alcalde-Presidente, PEDRO SAN VICENTE CORRES.

**Anexo**

ORDENANZA REGULADORA PARA LA INSTALACIÓN DE ELEMENTOS DE MOBILIARIO URBANO EN LA VÍA PÚBLICA A INSTANCIA PARTICULAR

CAPÍTULO I.- NORMAS GENERALES

Artículo 1.- Objeto.

La presente normativa tiene por objeto regular la ocupación de la vía pública y el aprovechamiento especial de la misma con elementos de mobiliario urbano a instancia de particulares, a fin de garantizar la integridad de los viandantes y tráfico rodado, así como la mejor conservación de los viales públicos, señalando los requisitos previos para conseguir la autorización municipal previa a la citada ocupación.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación.

Esta normativa será de aplicación en todos los núcleos de población del término municipal del Valle de Arana.

Artículo 3.- Exigencia de la autorización municipal.

3.1. La ocupación de la vía pública y el aprovechamiento especial de la misma, aún de modo parcial, para la instalación de cualquier elemento de mobiliario urbano a instancia particular en vía pública precisará de la preceptiva licencia municipal.

3.2. Dicha licencia deberá ser solicitada junto con la documentación que permita juzgar sobre la conveniencia de otorgar la misma.

3.3. Hiri altzariak berehala kentzeko agindu ahal izango da, udal baimenik gabe jarritakoak badira edo bide publikoan baimendutakoa baino denbora gehiago egiten badute, eta testu honetan ezartzen diren neurriak betetzen ez badituzte.

Egintza horietaz gain, zigorrak ere ezarri ahal izango dira.

3.4. Ordenantza honek arautzen dituen baimenen izaera dela-eta, baimenak prekarioan emango dira, eta organo emaileak edozein unetan ezeztatu ahal izango ditu baina, kasu horretan, ezingo da horrgatik inolako kalteordainik edo dirurik eskuratu. Baimena ezeztatzen bada, baimenaren titularrak edo titularrek bide publikoan jarritako elementuak berehala kenduko ditu edo dituzte; bestela, Administrazioak berak kenduko ditu. Gastuak, berriz, titularrak ordaindu beharko ditu. Horrezaz gain, ordenantza honek arau-hausteei buruz ezarritakoa beteko da.

4. artikulua.- Baimenak emateko prozedura:

Baimenak eman edo ukatu Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez egingo da, eta prozedura honako hau izango da:

4.1. Eskabideak: hiri altzariak jartzeko bide publikoa okupatu edo edo hura berariz erabili nahi duen pertsona orok horretarako eskabide orria aurkeztu beharko du eta eskabide orriarekin batera okupazioaren krokisa. Krokisean, elementua hurbilen duen bide publikotik edo eraikinetik zein distantziaraino jarriko den eta haren ezaugarriak adieraziko dira. Kasua balitz, erabiliko diren lokailuak (lokailu motak, lokailu kopurua) eta lokailu horiek non joango diren ere adieraziko da.

4.2. Txostenak: eskabidea udal zerbitzuen irizpean jarriko da.

4.3. Administrazio Batzarraren adostasuna: espedientearen kopia eragindako herriko Administrazio Batzarrera bidaliko da, eskatutakoaren gainean egoki deritzona adieraz dezan. Hamabost egun igaro ondoren Administrazio Batzarrak ez badu inolako erantzunik eman, eskatutakoarekin ados dagoela ulertuko da.

5. artikulua.- Hiri altzariak jartzeko betebeharrak.

a) Bakarrik baimenduko dira eskatzailearen eraikinaren fatxadari atxikitako elementuak.

b) Ezin izango da elementu finkorik jarri, ez eta obrak egitea eskatzen dutenak ere, lokailuak jartzea eskatzen dutenak izan ezik.

c) Elementuen zuinketa egiteko balio historiko, artistiko edo arkitektoniko berezia duten eraikinen fatxadetako elementuak eta kutxetak edo erregistroak libre utziko dira.

d) Ezingo da inolaz ere atarietara edo lokaletara igarotzeko edo sartzeko bideak blokeatu edo itxi.

e) Oro har, jarritako elementua fatxadatik 0,50 metro atera ahal izango da gehienez. Tarte hori txikiagoa izango da beharrezkotzata jotzen bada.

f) Beti 4,00 metroko tartea utziko da libre, hiri altzaria gehien irtetzen den puntutik neurtuta.

g) Emandako baimenen titularrek bide publikoan jarritako elementuak ondo zainduko dituzte eta haien apaingarri guztiak behar bezala mantenduko dituzte. Debekaturik dago betebehar hau betetzen ez duen apainagarririk erabiltzea.

6. artikulua.- Aldizkako ikuskapenak.

Baimendutako elementuak ikuskatu egingo dira aldizka, ondo dauden eta behar bezala erabiltzen diren ikusteko. Ikuskapenaren ostean ikuskatzaileak txosten bat egingo du. Udalak txostenen kopia bana bidaliko die eragindako Administrazio Batzarrei.

Elementuetan ikusitako akatsak interesdunari jakinaraziko zaizkio, eta hark akats horiek zuzentzeko behar diren izapideei hasiera eman beharko die. Atzemandako akatsa oso handia balitz eta berehala konpondu beharrekoa balitz, udalak akatsa konpondu edo elementu kendu ahal izango luke, eragindako Administrazio Batzarrari kontsultatu ostean. Kasu horretan, eragindako gastuak interesdunaren kontura izango lirateke.

3.3. Podrá ser ordenada la inmediata retirada de todos aquellos elementos de mobiliario urbano que sean instalados sin contar con la licencia municipal o que permanezcan más allá del periodo autorizado y de aquellos otros que no cumplan las medidas que se establecen en el presente texto.

Estas acciones son independientes de las sanciones que podrán imponerse.

3.4. Dada la naturaleza de las autorizaciones reguladas por la presente Ordenanza, las autorizaciones se concederán con carácter precario y podrán ser revocadas en todo momento por el órgano que las haya concedido, sin que este hecho genere derecho a percibir cantidad ni indemnización alguna. En caso de producirse dicha revocación, el titular o titulares de las autorizaciones deberán proceder a la inmediata retirada de la vía pública de los elementos instalados, sin perjuicio de la ejecución subsidiaria por la Administración en caso de incumplimiento, siendo a cargo de quien incumpla cuantos gastos se originen, sin perjuicio de cuanto se dispone en esta Ordenanza respecto a infracciones.

Artículo 4.- Procedimiento para concesión de autorizaciones:

Las autorizaciones se concederán o denegarán mediante Resolución de la Alcaldía de acuerdo con el siguiente procedimiento:

4.1. Solicitudes: Toda persona interesada en la ocupación de la vía pública y el aprovechamiento especial de la misma con elementos de mobiliario urbano deberá presentar la oportuna solicitud acompañada de un croquis de ocupación en planta, ubicación solicitada del elemento respecto a la vía pública y al edificio más cercano, con definición del tipo y características del elemento y, en su caso, tipo, número y situación de los amarres.

4.2. Informes: La solicitud será sometida a informe de los servicios municipales.

4.3. Conformidad de la Junta Administrativa: Se remitirá copia del expediente a la Junta Administrativa del núcleo de población afectado al objeto de que manifieste los que estime pertinente. Transcurridos quince días naturales sin recibir respuesta por parte de la Junta Administrativa afectada, se entenderá su conformidad con la instalación solicitada.

Artículo 5.- Requisitos para la instalación de los elementos de mobiliario urbano.

a) Sólo se autorizarán elementos adosados a la fachada de la persona solicitante.

b) No podrán instalarse elementos fijos ni aquellos que precisen la realización de obras, a excepción de los amarres.

c) El replanteo de los diferentes elementos se realizará dejando libres aquellos elementos de la fachadas que cuenten con un especial valor histórico, artístico o arquitectónico así como las tapas de arquetas o registros.

d) En ningún caso se podrá bloquear o cerrar el paso o acceso a portales y locales.

e) Como regla general, el elemento instalado no podrá sobresalir de la fachada más de (0,50) metros. Esta distancia podrá verse reducida si así se estima oportuno.

f) En todos los casos deberá quedar un espacio libre de (4,00) metros, tomando como referencia del elemento de mobiliario urbano su punto más saliente.

g) Los titulares de las autorizaciones concedidas deberán mantener los elementos instalados en buen estado de conservación y ornato quedando prohibida la utilización de todos aquellos que no reúnan esta exigencia.

Artículo 6.- Inspecciones periódicas.

Los elementos autorizados estarán sujetos a inspecciones periódicas, para verificar el correcto estado y uso de los mismos, levantándose un informe por parte del técnico encargado de la supervisión. Desde el Ayuntamiento se remitirán copias de los informes a cada Junta Administrativa afectada.

Las anomalías observadas serán comunicadas al interesado para que se inicien los trámites correspondientes para su corrección. Si la anomalía detectada fuese de tal entidad que exigiese una acción inmediata, el Ayuntamiento, previa consulta con la Junta Administrativa afectada, podrá proceder a su corrección e incluso a la retirada del elemento siendo por cuenta del interesado todos los gastos que se ocasionen.

7. artikulua.- Arau-hausteak.

7.1. Kaleak Ordenantza honetan aipatzen den baimenik gabe okupatzen badira eta ordenantzaren testuan agertzen diren betebeharrekoren bat betetzen ez bada, zigorra jarri ahal izango da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zigortze-ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean adierazitakoarekin bat datorren prozedurari jarraituko zaio.

7.2. Alkate-lehendakariak edo bera eskuordetzen duen zinegotziak ezarri beharko ditu arlo honetako zigorrak.

7.3. Norbere kabuz edo enpresa instalatzaileen ordezkari edo arduradun gisa arau hau haustea dakarren ekintzaren bat burutu edota bultzatzen duen pertsona fisiko nahiz juridiko oro arau-hausteen erantzule joko da.

7.4. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

7.4.1. Arau-hauste arinak izango dira pertsonei eta ondasun publiko edo pribatuei kalterik egin gabe kalean ondorio arinak eragiten dituztenak.

7.4.2. Arau-hauste larriak izango dira:

- Arau hauek hausten dituzten beste guztiak.

- Edozein instalazio udal baimenik gabe egitea.

- Arau-hauste arinak konpontzeko udalak egin dien errekerimenduei kasurik ez egitea.

- Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea, hau da, urtebetean gutxienez arau-hauste arin bi baino gehiago egitea.

7.4.3. Arau-hauste oso larriak izango dira:

- Arau-hauste larria egitea, pertsonengan edo ondasun publiko nahiz pribatuetan ondorio larriak eragiten badute edo haiek arriskuan jartzen badute.

- Arau-hauste larriak konpontzeko udalak egin dien errekerimenduei kasurik ez egitea.

- Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea, hau da, urtebetean gutxienez arau-hauste larri bi baino gehiago egitea.

7.5. Aurreko idatz-zatian tipifikatutako arau-hausteengatik jar daitezkeen zigorrak honakoak dira:

a) Arau-hauste arinak:

- Amonestazio edo ohartarazpena.

- 18,00 euro bitarteko isuna.

b) Arau-hauste larriak:

- 18,01 eta 60,00 euro bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriak:

- 60,01 eta 150,00 euro bitarteko isuna.

Arau-hauste larriak eta oso larriak egiten badira bide publikoan jarritako elementuak berehala kendu beharko dira, kasu horietan horrela aginduta datorrelako. Agindutako betetzen ez bada, udalak berak ekingo dio agindutakoa betetzeari.

Horrezaz gain, jarritako elementuak behar bezala mantentzeko badaezpadako neurriak hartuko dira.

7.6. Esandako zigorrak Udal Agintariak ezarriko ditu, gertatu dena kontuan hartuta, arau-hausteak ekar ditzakeen kalte eta ondorioengatik zigor erantzukizunez edo kalteordainez gain.

8. artikulua.- Eskubideak eta tasak.

Norbanakoen eskariz hiri altzariak jartzeko bide publikoa bereziki erabiltzen bada, horregatik ordaindu beharreko tasak eta eskubideak ordaintzetik salbuetsita egon daiteke norbanakoa. Hori guztia Zerga Ordenantza batean arautuko da.

AZKEN XEDAPENA

Udalak behin betiko onartu eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean osorik argitaratzen den egunetik aurrera indarrean egongo da Ordenantza hau.

Artículo 7.- Infracciones.

7.1. La ocupación de las vías públicas sin la autorización a que se refiere la presente Ordenanza, así como el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones a que se hace referencia en el texto de la misma, podrán ser sancionadas, previo procedimiento que se ajustará a lo señalado en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

7.2. La competencia para imponer las sanciones en esta materia corresponderá al Alcalde-Presidente o Concejal en quien delegue.

7.3. Serán consideradas responsables de las infracciones a estas disposiciones todas aquellas personas, físicas o jurídicas, que realicen y/o promuevan alguna de las actuaciones que supongan la infracción de la presente normativa, con carácter propio o como representantes o encargados de las empresas instaladoras correspondientes.

7.4. Las infracciones serán calificadas de leves, graves y muy graves.

7.4.1. Tendrán la consideración de falta leve aquéllas que, sin afectar a la seguridad de las personas, bienes públicos o privados, incidan de forma leve sobre la vía pública.

7.4.2. Tendrán la consideración de falta grave las siguientes:

- Las demás infracciones a las presentes normas.

- La realización de cualquier instalación sin preceptiva licencia municipal.

- La desobediencia a los requerimientos efectuados por el Ayuntamiento respecto a la subsanación de infracciones conceptuadas como leves.

- La reiteración en la comisión de faltas leves. Habrá reiteración cuando se cometan al menos dos infracciones en el transcurso de un año.

7.4.3. Tendrán la consideración de faltas muy graves las siguientes:

- La comisión de una falta grave cuando concurran especiales circunstancias de gravedad o peligro para las personas o bienes públicos o particulares.

- La desobediencia a los requerimientos efectuados por este Ayuntamiento respecto a la subsanación de faltas conceptuadas como graves.

- La reiteración de faltas graves. Habrá reiteración cuando se cometan al menos dos infracciones en el transcurso de un año.

7.5. Las sanciones que puedan aplicarse a las faltas tipificadas en los apartados anteriores serán las siguientes:

a) Faltas leves:

- Amonestación.

- Multa hasta 18,00 euros.

b) Faltas graves:

- Multa entre 18,01 y 60,00 euros.

c) Faltas muy graves:

- Multa entre 60,01 y 150,00 euros.

Tanto las faltas graves como las muy graves llevarán aparejada la orden de retirada inmediata de los elementos instalados en la vía pública, iniciando en el caso de incumplimiento el procedimiento de ejecución subsidiaria.

Todo ello sin perjuicio de la adopción de las medidas cautelares que correspondan en atención al estado de los elementos colocados.

7.6. Las expresadas sanciones serán impuestas por la Autoridad Municipal, teniendo en consideración las circunstancias concurrentes, sin perjuicio de las responsabilidades penales o la exigencia de los daños y perjuicios que se puedan derivar de la infracción cometida.

Artículo 8.- Derechos y tasas.

El uso especial de la vía pública por medio de elementos de mobiliario urbano a instancia de particulares podrá dar lugar a la exacción de los correspondientes derechos y tasas, cuya regulación se establecerá en una Ordenanza Fiscal.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente por el Ayuntamiento y publicado su texto completo en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.